

---

# EUSKALERRI EURITSUA

---

## EGURATSA

Negu-giroan gagozen artean, euria eta otza ugari doguz Euskalerraren alde onetan. Edurra be ez urrin.

Ori dala-ta, gure lurraldeari begira azterketa labur bat egitea bururatu jaku.

Munduko lurralde bakoitxak bere egurats-giroa dau: Batzuk ia urte osoa igaroten dabe edur-artean; beste batzuk, luraren garri-inguruan, urterik geiena igaroten dabe beroak kizkaltzen; erri batzuk are-artean eta basa-mortu legorretan bizi dira; beste batzuk zugatzez eta lorez betarik dagozan oian zabaletan.

## EUSKALERRIAN

Gure lurralde onetako giroa be ez da toki guztietan bar-diña, baiña geienean biguna ta gozoa da. Gure asabak aukeratu-bearra izan ba'eben, lurralde ondo gozatsua aukeratu eben: Alde batean ezoagoa eta bestean legorragoa.

Auñamendiaren erpa bat da Kantauri mendi-katea eta onek erdibitzen dau gure lurraldea. Kolitza'n asi, Gorbeia'n jarraitu, Aitzgorri ta Aralar'en amaitu, bitartean Urkiola, Barazar eta beste gainbe asko dirala.

Mendikate orren alde bakoitxeko ura, errekatxuak eta ibaiak bide dirala, toki batera doa. Iparraldekoak, erreka txikiak, Kantauri itxasora eta egoaldekoak, Ibairu edo Ebro ibai ederra bide dala, Lur-Arte edo Mediterraneo itxasora.

Auñamendi'ren iparraldean be bizi dira gure senide diran euskaldunak eta euren lurraldean jausten dan ura Kantauri'ra doa.

Itxas-aldeko lurralde ezoan beti izan dira basoak ugari eta soloak urri. Alde legorrean, ostera, basoak urriagoak dira, soloak ugariagoak. Eta soloetan matsa ugari. Ardao ona irabazbide. Orio-landara batzuk be badira.

## OTZ-BEROA TA EURIA

Gure eguratsa ez da ertzekoa, ez dau bero aundirik eta ez otz aundirik be.

Negutean mendi aundiak edurrez jazten dira, iñoz itxasoraiño be eltzen dira edurtzak, baiña ez da izaten beste munduko otzik.

Euskalerrri ezoan daukagun giroa, otza izan ez arren, ezoa dalako, geiago zomatzen dogu otz ori, alde legorrean ostera legorra dalako, otza aundiagoa izan arren, errezago artzen da.

Udea epela eta naikoa euritsua izaten da Kantauri-aldean; Euskalerrri legorrean, ostera, euri gitxi eta bero geiago.

Euriaren arazoa aspaldion pozbide biurtu jaku. Orain-txe diardue gure Erdi-Ugartearen egoaldean euririk egiten ez daualako oso urduri, etxeetan edateko ta garbiketarako bear daben beste ur ez daukela, eta urritasun aundiagoa soloak ureztatzeko. Guk ostera, ain bearrezkoa dan isurki au ugari daukagu.

## AURTENGO NEGUA

Aurtengo negua naikoa euritsua dogu, edurra be ez dabil urrin. Mendian 600 bat neurkin igon ezkeru aurkitu egiten dogu. Orregaitik otza be ba-daukagu, gabetan leia edo izotza be bai. Etxeetan bero-gailluak iziotuta euki bear ordu batzutan.

Gure aurretikoak otza eta beroa artzeko, gu baiño sendagoak ziran baiña oiturak egin dabe gu orretan biguna-goak izatea.

Dana dala, maiatz-inguruan asi udabarri gozoagaz eta Domu-Santuetara arte, sei edo zazpi illebe te giro gozatsuan bizi izango gara.

## LURRALDE AUKERATUA

Gure asabak, iñondik ona etorriak ba'dira, beste batzuk euskaldunak bertan sortuak gerala diño, baiña lurralde au eurak aukeratua ba'da, aukeraketa ona egin ebela esan bear dogu: Ez daukagu lur-ikararik, ez itxas-ikararik; ez daukagu bero larregirik eta ez otz aundiegirik; lurra oso emongorra dogu eta itxasoa laguntzaille ona; leun-uneak lurra lantzeko eta mendi txikiak etxeak babesteko; bakean bizi izateko lurraldea dirudi, baiña, zori txarrez, bakea ez da izan beti artu izan dogun emaitza. Askotariko gudak eta gizarte-ikarak ikutu gaitue. Baiña non dago bakezko lurralderik?

Ama lurra izan bekigu beti euskaldunok pozbide.

